

## **Orientazio eta enplegu zerbitzuak**

Komenigarria izaten da bai Interneten zein zeure udalerrian aurkitu ditzakezun

**orientazio eta enplegu zerbitzuei aholkua eta**

**argibideak eskatzea.**

Adibidez, [Lanbide.net](http://Lanbide.net) Euskal Enplegu Zerbitzua da,

eta bere eginkizuna langabeen **lan-munduratzearraztea** da, enplegu-politika aktiboen bitartez.

Lanbide.net webgunean **lana bilatu eta eskaini**

dezakezu eta **diruz lagundutako ikastaroei, izen-**

**emateei, prestakuntza zentroei eta abarrerri buruzko informazioa** ere aurkituko

duzu. Era berean, Interneteko atari honetan **elkarrizketa pertsonalizatuari eta lana**

**bilatzeko teknika eta erremintei** buruzko argibideak ere eskuratu ditzakezu.

Lanbide.net orriak zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- [Benetako lan-eskaintzak](#) (Lanbideren eskaintzak, prentsan argitaratutako eskaintzak, lan publikoa...).
- Lanbide-heziketari buruzko eskaintza.
- Interesatzen zaizun edozein lanbiderekin zerikusia duen informazioa.
- Profesional gisa eta enpresa gisa lagungarriak izango dituzuen bestelako edukiak.

[INEM](#)en (Enplegu Institutuan) ere enplegua bilatu dezakezu,

langileak kontratatu, Europako lan eskaintzen berri jaso,

enpresa berri bat sortzeko behar den informazio guztia eskuratu... Azken batean,

**enplegua, prestazioak eta formakuntzari buruzko informazio guztia** daukazu

bertan.

